

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2024 000001265

Xedea

2024-03-21 (e)ko OSOKO BILKURA deialdia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko uztailaren 5eko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:

“...

LEHENENGOA: Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez:

Hilero, azken ostegunetan 18etan, salbu eta ekaineko eta uztailleko osoko bilkurak goizez izango direla 8.30tan.

Abuztuan eta abenduan ez da osoko bilkurarik egongo.

BIGARRENA: 2023. urterako lehentasunez erantsitako egutegia onartuko da eta urtean-urtean bozeramaileek adostuko dute egutegia. Dena den, alkateak justifikatutako arrazoen ondorioz (jai eguna delako, agenda arazoak daudelako, quoruma bermatzeko...) edo bozeramaileek gehiengoz erabakitzearen ondorioz eguna eta/edo ordua alda daiteke.

...”

Bigarrena: 2023ko azaroaren 24ko Bozeramaileen Batzarrean saioen 2024. urterako egutegia onartu zen eta horren arabera 2024ko martxoaren 21ean ohiko Osoko Bilkura egongo da.



Argudioak

Bakarra: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluez gain, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

Ebazpena

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen daberen zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.





BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2024-03-21 (Osteguna)
Ordua:	18:00
Lekua:	Gizarte eta Kultura Etxeko Gaztelekuko lokala
2. deialdia:	2024/03/26 (Asteartea) 18:00


GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2024-02-29 OB (02)
2. - Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
3. – Bermeoko Udaleko diru laguntzen balorazio batzordea eratzea.
- 4.- 2024ko apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako mahaikideak izendatzea.
6. - EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako “Gernika Palestina deialdi herritarra” izeneko mozioa onartzea.
7. - EH Bilduk eta GUZAN udal taldeek aurkeztutako “Guggenheim Urdaibai Stop” izeneko mozioa onartzea.



8. - 2024ko 764-1163 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
9. - Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2024ko otsailaren 27 eta martxoaren 5 eta 11ko erabakiak.
10. - Eskari eta itaunak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E8000F14620002B9D8G3P0U4	Sinadurea eta data NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 15/03/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2024 10:51:23	: 2024000001265 Data: 15/03/2024 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia